
Euzko Mendien Oroipenak

*Nere lagun malte Sota eta Aburto
taf Imanol, eri maitasun biotzez.*

¡¡Euzko mendiak, Euzko mendiak...!! ¿Zergatik ikusten doguz zuen zelai ta basoak aiñ utzik...?

¿Zergatik zuen ixiltasuna apurtzen, dabe ekaitz gogorak eta aixe txistuak bakarik...?

¿Zergatik ezda aitzen zugaitzen dardara, eta efekatxoan txir-txifa besterik...?



¡¡Aitor, Aitor, zure guda santzuak ¿ixildu ote ziran betiko...?

Euzko mendien oroipenak itunak dira. Nun dituzue Euzko mendiak zuen Lartaun, Lekobide, eta beste ainbeste seme kelmentsu, abenda baten odola aiñ bikaiñ eta bulartsu erakutzi zutenak gizaldietan ziar...?

Nun Padura, Amayur, Izaba eta beste toki azkotan aiñ maitekor gorde ziñusten seme maitiak...?

Itun Euzko mendiak ikusten dezutelako zuen, abenda ilobi oñetan, ikusten dezutelako

zuen semien maitasun txiroa eta argala.

Lenago zuen semiak ziran zuen basoetako aritz tantaiak lez indartsuak, eta aritz baten azpian egiten zuten ziñ abenda gordetzeko...

Gauf zuek mendi maitiak ikusten dezue or goitik zuen abendan eria,

birinduta indar gabe, beren semiak loi tartian... diru zale, beren Abenda eta Abefia ezagutu nai ezik zikoitz tartian maitasun gabe.

Zuen kerispean mendi maitiak asi dezue Euzko-Efi au, zuen altzo biguñian asi dituzue ainbeste seme beren odola agertzen lotzatu ezdiranak, eta beren odoluan trebetaruna nun nai agertu dutenak, zeta gauñ...?

¡¡Oi mendi maitiak!! Negar dagizue danok ikustian zuen efi au dagon bezela, negar dagizue eta lotza bera begiratzten Abenda ilobi onetan ikusteko, gorantz begiok mendi maitiak, gorantz begiok Donokiruntz ba emen beian ezdago ezer zuenik:

Aritz orleya
Oritxu da ta
Kurutz zurija
Baltitzu.....

Ala ere itxaron pixkat mendi maitiak, itxaron pixkat ilobi onduan, ez il ba zuen semiak geran lez zuen gana dijuaz gure begiak eta gure biotzak, zuen altzuan jaio giñan eta zuen altzuan nai degu il.

Zuek zutiñik agertzen zeraten bitartian zuekin bizi nai degu, zuengana guaz goi-goiraño zuek laztantzera, eta artu gure laztanak ba zuen semiak gara, guk or goiko gañetatik negar egiten degu zuek lez, itun geratzen gera... baña, biotz bat degu eta bera zuentzat, egiazko maitetasuna ezkeintzen diguzutelako, eta gure Aberitik zuek bakañik zutiñik zaudetelako.

Itxaron, zutiñik, ez il, igo zeruruntz, ba zuek zerate gure itxaropena, Abendan itxaropena, eta entzun zuen seme aundien baten abesti goxo xamuña:

Obi-onduan
Negarrez zakust
Miñes beterik
¡Gaxua!
Amatau yatzuz
Gogua
Eta odol
Ofen berua
Ta, Ama jondiño il etzara!

LINAZASORO TAR KARLA
(Euzko Mendigoizale Bateakua)